

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARMIÑÓNGO UDALA

Bake epaile titularren eta haren ordezkoren karguak betetzeko deialdia

Botere Judizialaren Lege Organikoaren (BJLO) 101. eta 102. artikuluetan xedatutakoa betetzeko, eta Bake Epailei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Araudiak 5. artikuluan xedatutakoa betez, udalbatza honek aukeratu egingo ditu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Batzordeari proposatu, Armiñóngo bake epaitegiko bake epaile titularra eta haren ordezkoa lau urterako.

Hautagaitza aurkeztu nahi duten pertsonak udaletxean egin ahal izango dute, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo 15 egun baliodunetan.

BJLOn hala jasota dagoenez gero, honako hauek ezinbesteko betekizunak izango dira:

1. Adin nagusikoa izatea.
2. Nazionalitate espainiarra izatea.
3. Ezintasuneko (BJLOren 303. artikulua) edo bateraezintasuneko (BJLOren 389tik 397ra artikulua) auziren batean sartuta ez egotea.

Halaber, bake epaileak ezingo dira alderdi politiko edo sindikatu bateko kide izan eta ezingo dute horien zerbitzurako lan egin, eta debekatuta dute BJLOren 395. artikuluan (3/1995 Araudiaren 23. artikulua) jasota dauden jarduerak gauzatzea.

Udaletxean eskuragarri den eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

1. NANaren fotokopia.
2. Zigor aurrekaririk ezaren ziurtagiria.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hau.

Armiñón, 2026ko martxoaren 25a

Alkatea

GORKA MEANA MARCOS